Se resuelve aprobar el Pliego de Claúsulas Administrativas Particulares que habrá de regir el procedimiento negociado.

### Construcción de un depósito de 100 m3 de capacidad para el abastecimiento de água en la localidad de Urretxu
Se acuerda aprobar el proyecto "Construcción de un depósito de 100m3 de capacidad para el abastecimiento de agua en la localidad de Urretxu e incoar expediente de contratación.

### Colaboración para el acompañamiento al nuevo BKT: Adjudicación contrato menor .
Se acuerda adjudicar, en la modalidad de contrato menor, a LKS el servicio de colaboración para el acompañamiento al nuevo BKT según oferta presentada, 20.833,60 €.

### Acciones formativas en el área de aplicaciones ofimáticas: Adjudicación contrato menor
Se acuerda adjudicar, en la modalidad de contrato menor, a UGLE. Las acciones formativas en el área de aplicaciones informáticas según oferta presentada, 11.600 €.

### Colonias abiertas 2010: Aprobación pliegos
Se acuerda aprobar el Pliego de Claúsulas Administrativas Particulares y el Pliego de Prescripciones Técnicas.

### Propuesta mejora Museo de Minerales y fósiles Urrelur: Adjudicación contrato menor
Se acuerda adjudicar a Artelatz la propuesta de mejora del museo de minerales y fósiles Urrelur según oferta presentada, 20.651,60 €.

### Relación de facturas
Se da cuenta de la relación de facturas nº 5 por importe de 43.521,34 €, que es aprobada por unanimidad

### Propuesta de colaboración para la elaboración de un Plan Económico financiero: Adjudicación contrato menor
Se acuerda adjudicar, en la modalidad de contrato menor, a LKS S.Coop. la propuesta de colaboración para la elaboración de un Plan de Gestión Económico Financiero, según oferta presentada, 17.806 €.

## _2010_05_10_ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _

### Dirección obra " Udaletxearen birgaitzea (1. Fasea): Adjudicación contrato menor
Se acuerda adjudicar, en la modalidad de contrato menor, a J. M. E. y A. P. la dirección de obras del proyecto " Udaletxearen birgaitzea (1. Fasea) según oferta presentada, 7.988,15 €.

### Urbanización: barrio Mundo Mejor. Carretera Urretxu Santa Bárbara: Aprobación proyecto
Se acuerda aprobar el proyecto "Urbanización barrio Mundo Mejor. Carrretera Urretxu - Santa Bárbara" e incoar expediente de contratación.

### Bacalaos Monedero, S.L.U.: Expediente de actividad para ampliación de actividad en Mugitegi Vial E nº 14: Informe Junta Gobierno Local.
Se acuerda concederle la autorización solicitada, siempre que se adopten las medidas correctoras pertinentes.

### Dia Internacional de los museos: Urrelur museo de minerales y fósiles
Se aprueba el programa del Día Internacional de los museos, y su presupuesto por importe de 4.694,76 €.

### Contratación de los servicios para la gestión del Servicio Polivalente para adolescentes de Urretxu y Zumarraga: Rectificación pliegos.
Detectados dos errores en los pliegos se ha constatado la necesidad de realizar dos modificaciones en los mismos, estas son aprobaadas por unanimidad.

### Goierri, K.E. : Subvención
Se acuerda conceder a la S.D. Goierri subvención por importe de 225 €.

### XIV Salida Montañera memorial Iñaki Beitia: Subvención
Se acuerda otorgar a la organización una subvención por importe de 1.650 €.

# Europa Mailako Gazte Topaketa, Urretxu 2010

*M. ª Carmen Viedma*



*Gazte Topaketa. Schwarzenbruck 2008*

**Urretxu eta Schwarzenbruck-en arteko senidetzea 1991ko maiatzean gauzatu zenetik bi herriek maila guztietan elkar ezagutzea izan da helburua. Honetarako, hainbat egitasmo burutu dira Urretxun zein Schwarzenbruck-en bertan, besteak beste, kirol eta kultur mailako topaketak, era guztietako ekitaldiak...Bi herri hauez gain bestelako herri batzuek ere parte hartu dute ekitaldi hauetan; alde batetik, Schwazenbruckekin senidetuta dauden hainbat herrik (Alemaniako Geyer herriak edota Hungariako Kecel-ek), berak babestutakoek (Gufidaun eta Tirolek) eta, bestetik, sarri harremanetan egoten diren herriek (Alemaniako Pforzein eta Gernikak).**

Dagoeneko gure herrietako gazteen arteko zenbait topaketa burutu dira, azkena Schwarzenbruck 2008ko abuztuan. Aurtengoa gazteei bereziki zuzendutako topaketa Urretxun izango da eta Geyer, Kecel, Gufidaun, Schwarzenbruck eta Urretxuko gazteek parte hartuko dute.

Kanpoko lau herrietatik hamarna gazte etorriko dira euren begiraleekin. Urretxutik, ordea, askoz parte hartze handiagoa izango da, izan ere, elkarte sozial eta kultural askoren parte hartzea espero da.

Topaketa hau abuztuaren lehenengo astean izango bada ere, antolaketa lanak apirilean hasi ziren eta irailera arte ez dira amaituko. Apirilean bertan gazteek osatutako mahaia eratu zen eta bertan gerora egin beharreko hitzaldiak, ekitaldiak, mahai-inguruak eta abarrak zehaztu ziren.

Antolaketa talde honetako partaideak Goierri Saski-Baloi taldeko partaideak dira eta Jon Pol Agirreren ikuskapenean, proposatutako ekitaldiak sustatzen saiatuko dira. Ezinbestekoa izango zaie 2008an Schwarzenbrucken izan zirenean bizi izandako esperientzia. Oso onuragarritzat jotzen dituzte han bizi izandakoak. Hizkuntzarekin zenbait oztopo aurkitu arren gaur egun ere internet bidez harremanetan jarraitzen dute han ezagututakoekin. Bestalde, izugarrizko ilusioa antzematen zaie aurten antolatzaile izateagatik eta gure kultura eta herria ezagutarazteagatik.

*El Encuentro de Jóvenes Europeos se realizará el próximo mes de agosto en Urretxu.*

Bestelakoak egingo diren arren asmoa topaketaren egun bakoitza parte hartzaile den herri bati eskainia izatea da. Esate baterako, dagokion herriak egun horretan bere hizkuntzaren berri emango die gainontzekoei.

Talde jokoak egingo dira elkarlana eta partaide guztien parte hartzea bultzatzeko. Talde bakoitzeko partaideak herri desberdinetakoak izango dira. Gauero Areizaga-Kalebarren enparantzan herri bakoitzak bere kulturaren erakustaldia egingo du. Hitzaldiak, eztabaidak, mahai-inguruak eta dena delakoak guztientzat irekiak izango dira, aberasgarriagoak eta emankorragoak izango dira.



Gazte Topaketa. Schwarzenbruck 1997

Desde que el hermanamiento entre Schwarzenbruck y Urretxu se hace oficial en mayo de 1991 se ha estado intentando que ambos pueblos se conozcan, en el más amplio sentido de la palabra. Se han realizado encuentros culturales y deportivos, intercambios y otras actividades tanto en Urretxu como en Schwarzenbruck además de varios encuentros de jóvenes de nuestros pueblos, el último en agosto de 2008 en Schwarzenbruck. Este año el encuentro se realizará en Urretxu, contará con la presencia de las ciudades de Geyer, Kecel, Güfidaun, Schwarzenbruck y Urretxu, y estará dirigido especialmente a jóvenes. Se celebrará la primera semana de agosto, pero ya en abril se comenzó a desarrollar el programa específico a través de una mesa de participación juvenil en la que se concretarán las actividades, charlas, conferencias y tertulias.

Se prevé que cada día del encuentro esté dedicado a una de las culturas participantes aunque también se realicen actividades generales. Como ejemplo, cada día uno de los pueblos participantes dará una breve lección de su lengua al resto de asistentes.

Se pondrán en práctica juegos colectivos para fomentar la cooperación y la integración de todos los participantes. También habrá cada noche una presentación de la cultura de cada participante abierta al público y al aire libre en la plaza Areizaga-Kalebarren. Las charlas, conferencias, debates y otras actividades también serán abiertas al público, con lo que se enriquecerán ampliando las opiniones y puntos de vista.

*Maite Quevedo - M.ª Carmen Viedma*

# Ba al zenekien Urretxu Alemaniako Schwarzenbruck herriarekin senidetuta dagoela? Eta zer deritzozu? Bestalde, ba al zenekien abuztuan Urretxun Europar Gazte topaketa bat egingo dela?

## ITZIAR YURREBASO



*Zerbait entzun izan dut eta Urretxuko festetan ikusi izan ditut. Gazte topaketaren inguruan ez nekien ezer. Ekintza polita izan daiteke kultura ezberdinak ezagutzeko. Bertan egonez gero, gerturatuko nintzateke.*

*"Bertan egonez gero, gerturatuko nintzateke."*

## JUAN CRUZ LIZARRALDE

*"Denbora badut joango naiz topaketa ikustera."*

*Bai, badakit bi herrien artean senidetza harremana dagoela, ikusi izan ditut alemaniarrak etorri direnean. Ongi dagoen gauza bat da. Gazte topaketarena ere bai, baina ez nuen ekintza horren berri. Denbora badut joango naiz ikustera!*



## REMI GARCIA



*Sí que he oído que gente de Urretxu ha ido a un pueblo de Alemania, a aprender alemán o a trabajar, pero no conozco bien la relación de hermandad entre los dos pueblos. Sobre el encuentro no sabía nada, pero me parece interesante*

*"No conozco bien la relación de hermandad."*

## JAVI GOMEZ

*Si, ya sé que han venido varias veces y que gente de aquí también ha estado en Alemania. Me parece algo bonito, aunque realmente no conozco en qué se basa esa relación. No, no sabía que se celebrará tal encuentro en Urretxu.*



*"No sabía que se celebrará tal encuentro."*



## ¿Sabías que Urretxu está hermanada con la localidad alemana de Schwarzenbruck? ¿Qué opinas? ¿Y sabías que en agosto Urretxu acogerá un Encuentro de Jóvenes Europeos?

### GARBIÑE MORENO

*Ba ez nekien bi herriak senidetuta zeudenik, baina ongi iruditzen zait. Gazte topaketaren berri ere ez nuen . Ekintza interesagarria da, beste herrialdetako jendea eta haien ohiturak ezagutzeko aukera izan daiteke, gerturatuko naiz ikustera.*

*"Ekintza interesgarria da gazte topaketa."*



### ANTONIO RODRIGUEZ

*"Sobre el encuentro no sabía nada."*



*Sí, ya sé que los dos pueblos están hermanados. Soy del Txirimiri y cuando vienen los alemanes suelen ir a la sociedad. Me tocó atenderlos cuando estuve en la directiva. Sobre el encuentro no sabía nada, pero me parece algo bonito.*

### JOSE MARI ETXEZARRETA

*Ba urteren batean Urretxuko festetan ikusi nituen alemaniarrak, baina egia esan ez dakit zein harreman mota dagoen bi herrien artean. Ongi iruditzen zait, gauza positiboa da. Gazte topaketaren inguruan ez dut ezer entzun.*



*"Ongi iruditzen zait, gauza positiboa da."*

### M.ª DOLORES KORTABARRIA



*"Gazteentzat gauza polita dela iruditzen zait."*

*Bai, festetan etorri izan dira, ikusi izan ditut. Ondo dago herrien artean era horretako harremanak egotea. Topaketa horren inguruan berriz ez dut ezer entzun baina gazteentzat gauza polita dela iruditzen zait.*



# Urretxuarrok, jaiotza tokiaren arabera

*Aztiker*

**Biztanleak jaiotza tokiaren arabera**
Urretxu, 2009




## Ba la zenekien?

Urretxuarron %40,3 (2.787 pertsona) gure udalerrian jaiotakoak gara. Gure populazioaren %33,7 berriz (2.326 pertsona), Gipuzkoako beste herrietan jaiotakoa da, eta 1,6koa Erkidego Autonomoko beste herrietan (113 pertsona). Espainiko estatuan jaiotakoen kopurua %19,3koa da, hots, 1.335 pertsona. Europako batasuna osatzen duten herrialdeetan jaiotakoak, %1,8 dira (126 pertsona), eta Europako Batasunetik kanpo jaiotakoak, %3,3 dira, hots, 225 pertsona.

| Eremua | Urtea | Biztanleak | Udalerrian | Herrialdean | EAEn | Espainiako Estatuan | Europako Batasunean | Europako Batasunetik kanpo |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Urretxu | 2009 | 6.912 | 2.787 | 2.326 | 113 | 1.335 | 126 | 225 |

## Eta nongotarrak dira Europar batasunetik kanpo jaiotako urretxuarrak?

Aurrez esan bezala, urretxuarren %3.3 da Europar Batasunetik kanpo jaio den, alegia 225 pertsona. Horien jaiotze lurraldea honela banatzen da:

- 7 pertsona Europako Batasunetik kanpoko Europako beste herrialderen batekoa dira.
- 70 pertsona, Afrikarrak dira.
- 120 pertsona amerikarrak dira.
- 28 pertsona asiarrak dira.
- Urretxun ez dago Ozeanian jaiotakorik.

**Batasunetik kanpo jaiotakoak, lurraldeen arabera**
Urretxu, 2009




| Eremua | Urtea | Europako Batasunetik kanpo | Europa | Afrika | Amerika | Asia | Ozeania |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Urretxu | 2009 | 225 | 7 | 70 | 120 | 28 | 0 |

Informazio gehiago: **www.urretxu.net**
"Udal administrazioa" atalean, "Urretxu zenbakitan" azpiatalean

_Kaixo Gazte / Kaixo Joven

# Xabier Chico, saskibaloian burubelarri

*Ana Isabel Iturbe*

Txikitan futbolean jolastea gustatzen zitzaion horietakoa zen Xabier, halere saskibaloi munduan sartzea erabaki zuen, kirol nagusian “etorkizun gutxi” zuela ikusita.

1983.urtean hasi, Goierriko kategoria ezberdinetan aritu eta talde nagusian 17 urterekin egin zuen debuta, Baskoniako “Caja Alava”ren aurka.

28 urterekin erretiratu eta Goierrin entrenatzaile dabil oraindik. Kategoria guztiak entrenatzeaz gain taldeko



garai hoberenak bizi izan ditu, baita bi igoera disfrutatzeko aukera ere. Aurten, gainera, “1ª Nacional” kategoriara igotzeko fasea jokatu ahal izan dute.

Astean 4 egunetako “dedikazioa” eskatzen duen kirola da, baina gustora egiten duena. “Hainbatetan utziko dudala diot, halere, hemen nago oraindik” dio.

Duela gutxi Euskal Federazioak Euskadiko hautatzaile izateko proposamena egin dio, gizonezkoen kadete mailan, baiezkoa emanez. Hiru laguntzaile izango ditu, Goierri taldean berarekin dabiltzanak. Hasera batean 2 urtetarako izanik.

Orain arteko taldearekin eta Selekzioarekin jarraitzeko asmoa du, erronka polita iruditzen zaio.

Saskibaloiaz gain beti gustatu izan zaio txirrindularitza, mendi bizikletan aritzea.

Gaztetxoen artean saskibaloirako zaletasuna asko haunditu dela dio, horregatik kirola egitea animatzen ditu, ez du zertan saskibaloia izan behar.

27 urte eta gero, hortxe dabil Xabier, gustoko kirolean, horrela jarraitu!

# Ianire Soraluze, urretxuar diseinatzaile bat Brasilen

*Ana Isabel Iturbe*

Betidanik izan du gustukoa Ianire Soraluze urretxuarrak marrazketa, arropa bere pasioetako bat izanik. Lizeoan ikasten ari zela diseinuko karrera bazegoela jakin eta garbi ikusi zuen horretan lan egin nahi zuela.

Bartzelonan ESDI eskolan ikasi eta gero Brasilen patronaje eta josteko ikastaro bat egin zuen. Garai hartan gaur egun bere senarra dena ezagutu zuen, brasildarra bera, eta bertan denboralditxo bat igarotzea erabaki zuen, Brasilen, oraindik zein bide jarraituko zuen jakin gabe.

Hantxe zegoela, Sao Paulon, lehenengo aldiz bere kolekzio osoa aurkezteko aukera agertu zitzaion Casa de Criadores moda astearen barruan.

Bere inspirazio iturria nondik datorren galdetzerakoan, gehienbat feminitate haundiko emakumearengan pentsatzen duela dio, erromantiko eta delikatua, baina ez horregatik indar gabea. “Sustraia” kolekzioa, lehenengoa izanik, Euskal Herriko kulturan oinarritu zen batipat, hainbat kazetariren interesa piztuz.

Hainbat disenatzailerekin kolaboratzeko aukera izan du, Juan Pedro Lopez-ekin, adibidez, baita modelo ezagunekin ere, Drielly Oliveira brasildarra, Valentinorentzat desfilatzen duena.



Orain udako kolekzioarekin dabil, irailean aurkeztuko duena. Lehenbiziko aldiz Madrilgo SIMM ferian parte hartuko du, Espainian gehiago ezagutzera eman asmoz.

Momentuz Brasilen jarraituko du, baina bueltatzeko intentzioa beti buruan, merkatua zabaldu nahian, “gero eta lan gehiago han, lehenago etxerako buelta”, dio.

Animo eta zorte on Ianire!

# San Joan arbolaren lore-koroa

Kizkitza Ugarteburu



**Aurtengoarekin 51 urte daramatza Juan Elgarrestak lan honetaz arduratzen. Itxuraz erreza badirudi ere, Juanek adierazi digunez, loreak ipintzeak badu bere sekretua. Iaz prestatutako lore koroa aurtengo San Juan sutara bota zen, aspaldiko usadioa errekuperatuz.**

Baserritarrak izan dira San Joan arbolaren ohitura mantendu dutenak, urtez urte tradizio horren inguruan hainbat lan eginez: arbola aukeratu, gorde, urtero punta berria ezarri, lore koroa egin eta Santa Barbaran jarri.

Arbolari lore-koroa ipintzearen ohitura aspaldikoa da, Donardegi baserriko Juan Elgarresta arduratu da azken 50 urteetan koroa prestatzeaz, aurtengoarekin 51 izango ditu eginak. Berak iaz prestatutako lore-koroa gordeta zegoen eta San Juan sutara bota zen, garai bateko ohitura errekuperatuz.

Hori dela eta Juanekin hitz egin dugu, zuzenean tradizio honen berri izateko. “50 urtetan koroa prestatzeko lana nere kargu izan dut, beti ere etxekoren batek lagunduta”.

Usadio honi buruz bere arbasoei hitz egiten entzun dien galdetu diogunean, ezetz erantzun du, beste lan asko bezala beti egin izan dela, besterik ez. “Adinekoek betidanik ezagutu izan dute”.

*La costumbre de colocar la corona de flores al árbol de San Juan es muy antigua.*

*La corona de flores del año pasado se echó este año a la hoguera de San Juan.*

Koroia egiten hasi baino lehen, loreak bildu behar izaten ditu Juanek. San Juan arbola ipintzen den egun berean, ekainaren 23an biltzen ditu, garai beroa denez, arratsaldean zuhaitza igotzen denean loreak itxurazkoak egoteko.

Baserri inguruko zelaietan bildutakoak erabiltzen ditu, "basokoak, garai horretan daudenak, batzuetan larrosak izaten dira, baina beste batzuetan ez, urtearen arabera.

Koroi erdia egiten da, zuhaitzaren puntan ipintzen denez, behetik ikus ahal izateko. Lore koroa egiteko lehendabizi urritz edo gaztain egur bat ipintzen da, aro bat. Ondoren, egurra loditzeko lizar ostoekin bildu egiten da ariarekin lotuz, forma emanez. Hurrengo pausua loreak ipin-tzea izaten da eta lan hau egoki egiteko sekretua aipatu digu Juanek: "loreen punta alde batera eta ipurdia bestera ipintzea, lore sustarrak alde batera, beti berdea eta loreak ikus daitezen". Pazientzia behar izaten dela dio.

San Joanetako jaietan Urretxun San Joan arbola jartzearen ohitura honek urteen poderioz aldaketak bizi izan ditu, esaterako, garai batean urtero arbola berria jartzen zen, arbola zuzentzearen lana soldaduskara joaten ziren koadrilen artean egiten zuten eta gurdiak erabiltzen ziren. Baina usadioari irmo eta tente eutsi izan zaio, arbola bezala, baserritarren lanari esker.

Udalak eskertu nahi die baserritar guztiei lan honetan parte hartzeagatik, baita Santa Barbarako irudi zaharrak udalari uzteagatik ere.



Juan Elgarresta, del caserío Donardegi, lleva 50 años confeccionando la corona de flores que se coloca al árbol de San Juan y la de este año ha sido su corona número 51.

A simple vista no parece un trabajo muy laborioso, pero Juan nos ha comentado que hay que tener paciencia y nos ha confesado el secreto a la hora de colocar las flores en la corona.

La punta de las flores hay que colocarla a un lado y la base al otro lado, para que en todo momento se vean las flores y el verde.

# Antxiñe Mendizabal
## Idazketari emana

*Gorka Azkarate*



**Antxiñe Mendizabal Zumarragako Nafarroa enparantzan jaio zen 1968an, eta 3 urte zituela Urretxura etorri zen bizitzera. Egun, Zumarragan bizi da. Bere idazle ibilbide oparoan, hainbat lan argitaratu ditu. Bere azken lanaz eta egungo literaturaz hitz egin dugu berarekin.**

**_Ikasketaz, kazetari; aspaldiko kontuak arakatzea gustuko duzu, ordea.**

*Leioan kazetaritza ikasi nuen, nahiz eta nire kasa aberastu dudan neure burua, ikasketetan baino gehiago. Unibertsitatean nengoenean, dibulgazio lanak gustukoak nituen. Prentsan hasi nintzen lanean, baina ez zetorren nirekin bat. Eta horrela, dibulgazio lanak egiten hasi nintzen, gerra zibila eta errepublika, baserriena eta trikitiaren ingurukoa, besteak beste. Artxiboetan arakatzen hasi nintzen. Hala ere, ez naiz historiagilea, besteek egindakoa bildu eta beste interpretazio bat egin izan dut.*

**Egun editore lanetan ari zara; zertan datza, zehazki, editore lana?**

*Orain arte, argitaletxera iristen ziren lanak irakurri*

*eta baloratzea zen editorearen lana. Sarritan ez da lan atseginegia, irizpide markatugoak (balizko lana zein sailetan koka daitekeen eta abar, esaterako) egon badauden arren, nagusiki iritziaren arabera jokatu behar izaten delako. Jarraian, liburuaren produkzio prozesu osoaren gainean egon beharra dago, liburua gizarteratu arte. Proiektu berriak bilatu beharrak ere pisu handia hartu du editorearen lanean. Lan honek ezagutza handia eman dit, lan asko pasa baitira nire eskuetatik.*

> *Haur literaturan askatasuna dago, uneoro umorea erabiltzeko aukera.*

**_Zure azken lana, “Eta zer?” sailean kokatzen da: “Lotsatia naiz, eta zer?”**

*Lotsaren gaia gustukoa nuen, badakit zer den haur lotsatiaren kontua. “Eta zer?” bilduman erraza da pedagogismo hutsean erortzea, baina nik lehentasuna istorio bat kontatzeari eman nahi izan diot. Literaturak gailendu behar du.*

**_Azken hau ez da, ordea, haur eta gazte literarura alorrean argitaratu duzun lehenengo lana izan.**

*Haur literatura ezezaguna zen niretzat, besteen lanak irakurtzea tokatu zitzaidan eta bertan altxor bat dagoela pentsatu nuen, askatasun bat dago helduen literaturan ez bezala, eta umorea uneoro erabiltzeko aukera ere beti da lagungarri. Sekula ez dut buruan izan honetan aritzea, baina gustatu egin zait azkenean.*

**_Egungo literaturan irakurrienak diren liburuak azalekoegiak direla esan izan da.**

*Gizartearen joerek agintzen dute, eta industriak. Irakurtzeko tarterik ez badago, edo irakurri trenean edo autobusean soilik egiten badugu, gauza sinpleek lekua hartzea normala da. Azken finean, ohitura sozialekin erlazionaturik dago zer irakurtzen den. Irakurtzea ezinbesteko tresna da gazteenen heziketan, eta haur gutxi ikusten dut nik liburua esku artean dutela. Haurren espresatzeko gaitasuna asko jaitsi da eta hori kezkagarria da. Irakurtzeko zaletasun ezak ekarri du hori, ez baitugu irakurtzeko denborarik hartzen.*

**_Etorkizunean, badirudi liburu digitalak lekua hartuko diola liburu tradizionalari...**

*Bai, hala da, liburu digitalak indarra hartuko duela dirudi. Europan ikusita dago, liburudenda handietan lehen azalera guztia liburuek hartzen zuten; orain, zati bat baino ez, gainerako azaleran bestelako produktuak saltzen dira, teknologia berriekin erlazionatuak, gehienak. Liburu tradizionala artikulu arraro bilakatuko dela ematen du.*

**_Izango duzu, orain ere, lanik esku artean.**

*Idazten ari naiz, baina argitaratuko den ala ez ez dakit. Haur eta gazte literatura alorretik kanpo badut beste ideiarik ere. Sortze prozesua da niretzat garrantzitsua, eta horretarako denbora asko behar da. Literatura maite dut, eta baita, neurri batean, gorrotatu ere. Literatura ez den beste edozein espresio bidetan ere gustura arituko nintzatekeela uste dut.*







*Antxiñek argitaratu dituen azken 2 liburuak.*

*La escritora Antxiñe Mendizabal ha publicado recientemente su último trabajo de literatura juvenil, el cuento titulado “Lotsatia naiz, eta zer?”. Anteriormente, ha publicado diversos libros, tanto de literatura juvenil como títulos que recogen diferentes aspectos de la historia de Urretxu y Zumarraga.*

# La Casa de Camineros

*Jon Castrillo*

**Urretxun hain ezaguna den etxe hau, Zumarraga - Zumaia trenbidearen sailetan eraiki zuten 1932an. Inzatarren hiru belanauldi bizi izan dira bertan, egun Moisesek mantentzen duelarik familiaren tradizioa sobrestante kargua betez.**

Hace ahora casi 80 años, en noviembre de 1930 el entonces Director de Caminos Provinciales comunicó a la Excma. Diputación de Guipúzcoa la conveniencia de la compra de un terreno lindante con la carretera Madrid-Irún y propiedad del ferrocarril Zumarraga-Zumaia, para la construcción de un edifico de viviendas y almacén para un capataz y varios peones camineros. Así, la propia Diputación se autocompra el terreno por un valor total de 38.003,40 ptas (a 10 ptas/m2).

*Hasieran, lur-zatia Zumarragakoa zelakoan argitaratu zuten eraikitzeko deialdia.*




*Jatorrizko egitasmoan aurreikusitako "bidezainen etxeko" aurrealdea*

Aprobado el proyecto, erróneamente se saca a concurso público su ejecución como si fuera terreno de Zumarraga. Reclamada la equivocación y tras la rectificación del anuncio para la presentación de propuestas, se adjudica finalmente la ejecución de las obras a D. Prudencio Olaizola como proponente más barato de entre 8 aspirantes, por la cantidad de 54.058,40 ptas.

En Junio de 1932 finalizan las obras, siendo en estos casi 80 años muchos los inquilinos que la habitaron; sin embargo, curiosamente, hoy en día, Moisés Inza es el único trabajador que vive en la casa que anteriormente también ocuparon su abuelo y su padre.

Moisés Inza como sobrestante, Juan Luis Ormazabal como capataz y 8 peones más completan la plantilla que desde Urretxu se ocupan del mantenimiento de toda la red viaria del Alto Urola y Alto Deba, cortando hierba, cubriendo baches, desatascando rejillas, retirando árboles caídos, etc..., pero sobre todo, eliminando la nieve acumulada en la calzada. Una responsabilidad que en ciertos tramos es compartida con el Ayuntamiento de cada localidad y que por ello, a veces, no se realiza con la urgencia y coordinación que todos precipitadamente exigimos en esos casos.

Junto con esta casa de Urretxu, existen en activo otras 3 más, situadas, concretamente, en las localidades de Azpeitia, Tolosa y Donostia, abarcando así la totalidad del territorio guipuzcoano.

*Arau Subsidiarioek aurki erabakiko dute etxearen etorkizuna.*

Sin embargo hay que indicar que según y lo que, finalmente, dictaminen las Normas Subsidiarias puede que este edifico tenga los días contados en su actual ubicación.

## _Kaixo txiki

# Udan ere kirola egiten!



Ana Isabel Iturbe

Badatorrela uda, badatorrela, bukatu zaizkizula eskolara joateko komeriak, aupa oporrak! Urretxuko Udalak kirol jarduera ezberdinak prestatu ditu zuretzat. Besteak beste, honako hauek:

IRRISTAKETA AEROBIKA PILATESA MULTIKIROLA

PILOTA YOGA GAZTESPINNINGA









5-6 urtetik hasi eta 18 urte bitartekoentzat prestaturiko kirolak dira. Batzuk goizez eta beste batzuk arratsaldez. Astelehenetik ostiralera, uztaila bukatu arte.

Apuntatu edo informazio gehiago jaso nahi baduzu, zoaz Aldiri kiroldegira, eta bestela telefono honetara deitu: 943 03 80 92.

## Denborapasak

Egin dibertigarri oporrak, aupa kirola!!

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| O | C | K | I | B | O | R | E | A | D |
| O | A | O | M | S | I | L | K | I | Z |
| R | D | G | B | B | E | J | Q | A | F |
| A | T | E | K | I | R | E | G | I | U |
| E | Y | O | C | P | I | L | O | T | A |
| W | O | D | F | U | T | B | O | L | A |
| P | G | N | I | N | N | I | P | S | A |
| L | A | R | W | A | B | Z | F | B | G |
| H | K | O | O | F | A | N | T | J | G |
| G | Y | M | Y | T | J | S | Z | L | Z |

AEROBIK

FUTBOLA

IGERIKETA

PELOTA

SPINNING

YOGA

ZIKLISMOA

2010

# PAGOETA UDAL IGERILEKUA

Uda osoan zabalik, irailaren 12ra arte.

*Abiertas todo el verano hasta el 12 de septiembre*





## BIBLIOPISZINA

Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra

*Del 1 de julio al 31 de agosto*

Zure karneta aurkeztu eta kitto!

*¡Con sólo presentar tu carnet!*

LIBURUAK
KOMIKIAK
ALDIZKARIAK
PRENTSA…

ORDUTEGIA / *HORARIO:* 15:30 - 20:00
Igandeetan itxita / *Domingos cerrado*